



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

47. INFORMAZIO BULETINA

> 2010eko Uztaila-Abuztua



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Gipuzkoako enplegu-tasa Europar Batasuneko bano handiagoa da

2009an, 16 eta 64 urte bitarteko gipuzkoarren enplegu-tasa % 67,3 zen. Lan ordainduaren merkatuko parte-hartze honek EB-27aren batez bestekoa, % 64,6, portzentajezko ia hiru puntutan gainditzen du, Eustatek emandako informazioaren arabera.

Hogeita zazpi herrialdeetatik bederatzik Gipuzkoako tasa bano hobea dute, eta hiru herrialde gailentzen dira % 70 bano tasa handiagoarekin: Holanda, Danimarka, Suedia, Austria eta Alemania.

Azken urtean, enplegu-tasa murriztu egin da Gipuzkoan (% 70,3, 2008an), urte horretan hamarkadako indize handienak lortu ondoren.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/cj_ci/elementos/ele0006200/not0006236_e.html

> Lehentasuna ikerkuntzari eta berrikuntzari

7. Esparru-programaren babespean, Europako Batzordeak ikerkuntzan eta berrikuntzan 6.400 milioi euro inbertituko ditu 2011 urtean, krisitik ateratzeko modu zentzudun eta iraunkor bakar gisa eta hazkunde jasangarri eta sozialki bidezko baterako bidean. Finantziario hau erronka ekonomiko eta sozial handietan oinarritutako proiektuetara bideratuko da: klima-aldaketa, elikadura eta energiaren segurtasuna, osasuna eta biztanleriaren zahartzea.

2011ko 7. Esparru-programako proposamen deialdirako aurrekontua 2010 urtekoa bano % 12 handiagoa da eta 2009koa bano % 30 handiagoa.

7. Esparru-programa munduko ikerketa-programa handiena da, Euratom salbu, eta 2007-2013 aldirako 50.500 milioi euro bano gehiagoko aurrekontua du.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/research/fp7/index_en.cfm



> Emakumeen aurkako etxeko indarkeria

Europako biztanleen laurden batek etxeko indarkeriaren biktima izan den emakumeren bat ezagutzen du, Europako Batzordearen Eurobarometroak egindako inkestaren arabera.

Errudunak zigortzea eta gazteei elkarrekiko errespetua irakastea dira europarren ustez jarduera eraginkorrenak.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_344_fact_es_es.pdf



KOHESIO-POLITIKA

> INTERREG ekimenaren ebaluazioa

INTERREG ekimenak 5.690 milioi euroko finantziazioa izan zuen 2000-2006 aldian, hiru kapitulutan 81 programa izanik: mugaz haraindiko, nazioz haraindiko eta eskualde arteko lankidetzak.

Txostenaren arabera, ekimenak 5.800 enpresen sorrera babestu zuen, 115.000 lanpostu sortu edo babestu zituen eta 12.000 lankidetzak-sare eta -egitura ezarri zituen.

Halaber, txostenak dioenez, inbertsio fisikoek eragin nabarmena izan zuten lurraldearen garapenean, baina mugaz haraindiko edo nazioz haraindiko benetako dimentsioa lortu zutenean. Kudeaketaz arduratzen diren agintaritzek benetako helburuak ezartzea eta estrategikoki garrantzitsuak diren proiektuak sustatzea gomendatzen du ebaluazioak, hain zuzen ere, programen helburuei zuzenean lotutakoak.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/evaluation/pdf/expost2006/interreg_final_report_23062010.pdf

> Eskualdeko Politikaren ikuspuntu integratua

Panorama aldizkariaren azken alea kohesio-politikaren ikuspuntu integratuan jartzen du arreta eta baita Europa 2020 estrategiaren hiru helburu estrategikoei egiten dien ekarpenean: Hazkunde zentzuduna (lehiakortasuna areagotzea, bereziki gutxien garatutako eskualdeetan), Hazkunde integratzailea (enplegua sustatzea eta pertsonen ongizatea hobetzea) eta Hazkunde ekologikoa (ingurumena zaindu eta haren kalitatea hobetzea).

Halaber, zentzu geografiko malguago batekin lan egiteko beharra azpimarratzen du: maila txikian, irlen edo hiri-auzoen kasuan bezala, edo maila altuan, eskualde metropolitarretan edo makroeskualeetan bezala, Baltiko itsasoa kasu.

Eskualdeko garapen ekonomikoari begira ikuspuntu integratua edukitzeak arduradun politikoek behar errealei heltzeko estrategiak eta programak erabiltzea eskatzen du, eta ez diezaiotela jarraitu sektore bakoitzean banaka bitartekoak erraztasunez xahutzeari. Hori horrela izateko, eskualdeak berak aurrean dituen erronken analisietan oinarritutako helburuak ezarri behar dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag34/mag34_es.pdf



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> Kulturaren Agenda Europarra

Kulturaren Agenda Europarra abian jartzeak aro berri bat ireki zuen kultura-politikako lankidetzara europarrean. Helburu hauek ditu: kultura-aniztasuna eta kultura arteko elkarrizketa sustatzea; kultura sormenaren katalizatzaile gisa sustatzea eta kultura Europar Batasuneko nazioarteko harremanen ezinbesteko elementu gisa sustatzea.

Agenda abian jarri zenetik izandako esperientziak agerian uzten du kultura-politikari dagokionez Europa mailan dagoen lankidetzara ahalmena. Eta hazkunde zentzudun, jasangarri eta integratzailea sustatzera bideratutako estrategia europarraren esparruan, kulturak funtsezko eginkizuna bete dezake ondorengo ekimen adierazgarriek esker: Berrikuntzarako Batasuna (ekologia sortzailea, berrikuntza ez-teknologikoa), Agenda Digitala (hedabideen inguruko hezkuntza, sormenerako ingurune berria eta kulturara sarbidea) eta Enplegu berrientzako prestakuntza berriak (kultura arteko gaitasunak eta zeharkako prestakuntzak).

Halaber, kohesio-politikaren esparruan, kulturak tokiko eta eskualdeko garapenean duen eginkizuna azpimarratu beharko da (hiri eta eskualde sortzaile eta kultura artekoak). Eta EBren mugetatik haratago, kulturak hedapen-politikan eta kanpo-harremanetan duen eginkizuna neurri handiagoan ere garatu beharko da (Europari sormenerako leku egoki gisa irudia emanaz eta munduarekiko lankidetzara eta kultura truke orekatuak sustatuz).

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/culture/our-policy-development/doc/library/acte_ES.pdf



> Bultzada berria turismo europarrari

Europak munduko lehen helmuga izaten jarraitu behar du, eta osatzen duten lurraldeen aberastasuna eta aniztasuna baliozko gai izan behar da. Jakinarazpen honekin, Europako Batzordearen asmoa turismoari lotutako ekimenak modu koordinatuan bideratzea eta bere lehiakortasuna eta modu jasangarrian hazteko gaitasuna indartzeko ekintza-esparru berri bat definitzea da.

Politika europarrak bultzada berria behar du. Erantzun zehatzak eta egokitzeko ahaleginak eskatzen dituzten erronkak aurrean izanda, turismo europarraren industriaren eragileak euren ahaleginak batu eta EBren lehenetsun berriak aintzat hartuko dituen esparru politiko sendotu batean lan egiteko gai izan behar dira.

Eta aipatutako erronken mailako ekintza-esparru berri gisa ekintza multzo bat aurreikusten du, honako helburuetara bideratuta: turismo-sektorearen lehiakortasuna bultzatzea, turismo jasangarri, arduratsu eta kalitatezkoaren garapena sustatzea, Europa helmuga jasangarri eta kalitatezkoak dituen multzo gisa ikusaraztea, eta turismoa garatzeko Batasunak dituen politiken eta finantza-tresnen indarra maximizatzea.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0352:FIN:ES:PDF>

> Gobernantza ekonomikoa hobetzeko tresnak

Europar Batasunak ondo definitutako ikuspuntua duen politika behar du, suspertze ekonomikoa lagunduko duena, finantza publiko egokiak berrezarriko dituen eta hazkunde jasangarria eta enpleguaren sorrera modu aktiboan sustatuko dituen.

Eta Batasunak eta estatu kideek konfiantza eskuratu behar dute politikak lantzeko eta erabakiak hartzeko prozesuaren kalitatean, eta herrialderen bat noraezean dabilenean aldez aurretik jakin behar dute.

Horretarako, politika ekonomikoaren koordinazioa eta berrikustea indartzeko proposamen multzoa ezarri du; halaber, estatu kideak adostutako EBren esparruaren arabera jardungo direla bermatuko duten aplikazio eraginkorreko mekanismoak ezarri ditu.

Eta politikak koordinatu eta nazio politikei ekarpen europarra ahalbidetuko dien prozesua eta egutegia azaltzeko seihileko europarra ezartzea planteatzen du; halaber, politiken aurreko koordinazioa eraginkorragoa egitea planteatzen du.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0367:FIN:ES:PDF>



e-LIBURUTEGIA

> Liburu Berdea: pentsio-sistema egoki, jasangarri eta seguruak

Liburu Berde honek eztabaida europarra zabaltzen du kontsulta zehatz eta goiztiar baten bidez, pentsio-sistemek aurrean dituzten erronka nagusiei buruz eta estatu kideek pentsio egoki eta jasangarriak eskaini ditzaten Europar Batasunak eman dezakeen laguntzari buruz.

Gaur egungo joerak ikusita, egoera jasanezina dela adierazten du. Bizitza luzeagoa denez denbora luzeagoz lan egin ezean, baliteke pentsioen egokitzapenak okerrera egitea edo baliteke pentsioen gastuak modu jasanezinean gora egitea.

Alde batetik, pentsio-sistemen erreformaren bidez erretiro-pentsio egokiak eta jasangarriak sortzeko helburua, eta bestetik, Europa 2020aren helburuak, elkar indartzen dira. Europa 2020ak lanpostu gehiago eta hobetoak eta trantsizio positiboaren ideia azpimarratzen du; bi alderdi horiek erabakigarriak dira langileek (emakumeak eta gizonak) pentsioa jasotzeko dituzten eskubideak sendotu daitezzen.

Batzordeak, azaroaren 15era arte, interesa duten alde guztiei Liburu Berdean planteatutako galderak erantzuteko eta egoki derizkien iruzkinak gehitzeko gonbitea egiten die.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0365:FIN:ES:PDF>

Online galdetegia:

<http://ec.europa.eu/yourvoice/ipm/forms/dispatch?form=pensions>

> Kostaldeko eskualdeak

Europar Batasuneko kostaldeko eskualdeetan ia 200 milioi pertsona bizi dira, EB-22ko biztanleen % 43a, Eurostatek landutako txostenaren arabera.

Enplegu gehiena (% 72) zerbitzuen sektorean biltzen da, nahiz eta itsasaldeko eskualde desberdinen artean homogenea ez izan (446 NUTS3, horien artean dago Gipuzkoa). Turismorako gaitasuna edo bidaiarien itsas garraioa pertsonen eta enpresei emandako zerbitzuen garapenari lotuta daude; administrazio-zerbitzuak, berriz, eskualde bakoitzaren urbanizazio mailaren ondorio dira.

Ezaugarri sozioekonomiko eta demografikoak kontuan hartuz, eskualdeko tipologia lantzen da, ezaugarri horiek kontuan hartuta bost eskualde-talde osatuz.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-SF-10-038



> Iraupen luzeko zainketak eta genero ikuspegia

Europako gizon eta emakumeen artean iraupen luzeko zainketa eta arreta jasotzeko desberdintasuna aztertzen du txostenak; halaber, sexuen arteko osasun desberdintasunak, eta berdintasuna bermatze aldera, esparru honetako politika eta jardunek aldagai hori kontuan hartu behar dutela dio.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=738&langId=en>



ADIERAZLEAK

> Jaiotza-tasa Gipuzkoan eta Europar Batasunean

Gipuzkoako jaiotza-tasa Europar Batasuneko baxuagoa da; mila biztanleko 10,4 eta 10,0ko tasak dituzte, hurrenez hurren (2008an). Nolanahi ere, azken bi hamarkadatan Gipuzkoako tasaren igoera etengabea izan da, 1990an 7,9 tasa baitzuen.

Irlanda eta Frantzia jaiotza-tasa altuena duten herrialdeetan urrun egon arren, Gipuzkoako tasa bederatzi estatu-kideren aurretik dago: Alemania (8,3, Batasuneko tasarik baxuena), Austria, Italia, Portugal, Hungaria, Malta, Bulgaria, Grezia eta Errumania.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0006200/not0006232_e.html

> Energia berriztagarria

Energia berriztagarriaren kontsumoa, Europar Batasuneko energiaren azken kontsumoaren % 10,3 da (Eurostaten 2008ko datua), 2020 urterako proposatutako helburuaren erdia (% 20).

Herrialde batzuk portzentaje hori nabarmen gaitzen dute: Suedia (% 44), Finlandia (% 31), Letonia (% 30) eta Austria (% 29).

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-QA-10-030/EN/KS-QA-10-030-EN.PDF